

BULARREKO MINBIZIAREN FERRO-GHD **PROIEKTUAREN IV. DEIALDIA - 2022**

Helburua:

Bekaren xedea da bularreko minbiziaren arloko ikertzailerik onenei laguntza ematea eta pazienteei esparru horretan egin diren aurrerapen zientifikoaren transmisio arina sustatzea. Horretarako, proiektu zientifiko BAT aitortuko da, bularreko minbiziaren esparruan lan egiten duten eta mota horretako ikerketetan parte hartzen duten Espainiako erakundeetan lan egiten duten profesionalak aurkeztua.

Eskatzaileak:

- Ikertzaile nagusien betekizunak:
 - Proiektua gauzatzeko epean, UPV/EHUrekin funtzionario edo kontratu harremana egiaztatzea.
 - Doktore (PhD) edo mediku (MD) titulua izatea.
 - Beren lanak ikerketa onkologiko traslazionalean oinarritu izana, eta lan horrek osagai kliniko handia edukitzea.
 - Esparru biosanitarioan aplikatzeko potentziala duen proiektu zientifikoa aurkeztea.
- Hautagaiek ezin dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu.

Ezingo dute parte hartu obra edo zerbitzu bidez kontratatutako langileek.

Laguntzaren ezaugarriak:

80.000 €-ko beka, zeina bularreko minbiziari buruzko ikerketa onkologiko traslazionalaren proiekturik onenari emango zaion, ebazpenaren datatik aurrera. Ikerketa proiektuak ideia originaletan oinarrituta egon behar dira. Proposamen hori garatzeko aurreikusitako denbora epea 1 urtekoa da (2 gehienez).

Beka kopurua: 1

Eskaera prozesuak bi fase ditu.

➤ **1. FASEA - Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

- **Ikerketa proiektuaren memoria ingelesez**, deialdiaren txantiloari jarraituz (ez egin 3 orrialde baino gehiago).
- **Ikertzaile nagusiaren CVa**, estatuko deialdi publikoen (CVA) eredu normalizatuen txantilo laburtuari jarraituz.

Epea:

2022ko otsailaren 18ra arte

Hautatutako proiektuak hurrengo fasera igaroko dira.

➤ **2. FASEA - Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

- **Ikerketa proiektuaren memoria ingelesez**, deialdiaren txantilo luzatuari jarraituz.
- **Ikertaldearen CVa (CVA eredu)**

Epea:

2022ko apirilaren 4ra arte

Aurkezpena:

Eskaera guztiak elektronikoki bidali behar dira, PDF formatuan, [FEROren webguneko](#) aplikatiboaren edo posta elektronikoaren bidez honako helbide honetara: beca@fero.org

UPV/EHUko barne prozedura:

2022ko martxoaren 25a (hori barne):	Dokumentazioa convocatorias.dqi@ehu.eus helbidera bidaltzea, Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatutako babes gutuna epean lortzeko. Eskabidea Ikerketaren arloko Errektoreordetzari epe horren barruan aurkezten ez bazaio, ezingo da bermatu ikertzaile nagusiak errektoreordeak sinatutako babes gutuna jasoko duenik.
2022ko martxoaren 30a	Ikertzaile nagusiarri errektoreordeak Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik sinatutako babes gutuna bidaltzea
2022ko apirilaren 4a	ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA Ikertzaile nagusiak beca@fero.org/ fundaziora bidaliko du dokumentazio guztia.

Informazio gehiago:

FERO fundazioaren kontaktua: beca@fero.org

Arantza Mendivil (Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren Deialdien Atala)

Tel: 94 6017934

Convocatorias.dqi@ehu.eus